



Usurbilgo Udala

Usurbildar hori,

Gipuzkoako Foru Aldundiak Tolosa, N-I, Buruntzaldea eta Donostiako garraio publiko erregularreko loturetan egin nahi dituen moldaketetan, murrizketa handiak eta larriak aurreikusten dira usurbildarrontzat. Murrizketa horiek indar biziz salatu nahi ditugu Usurbilgo Udaletik. Hori dela eta, inguruetakoz zenbait alkaterekin batera, Aldundiari bilera eskatu diogu, herritarren beharrak kontuan hartu eta martxan dauden zerbitzuak mantendu ditzaten.

Izan ere, argitaratu duten aurreproiektuaren arabera, gaur egun eskaintzen den "Usurbil-Ospitalera" linea guztiz desagerraraziko luke Aldundiak. Bertan daude, besteak beste, Usurbilgo herriguneko eta Aginagako zein Txokoaldeko geltokiak. Horrez gain, "Usurbil-Hernani" arteko linean Zubietako ibilbidea ez da agertzen, eta, horrenbestez, Santueneko geltokia ere desagertzen da.

Udalaren iritziz, murrizketa hauek sekulako kaltea eragiten diete usurbildar guztiei, eta bereziki, adinekoen, gazteenen eta babes gutxieneko gizarte sektoreen artean izango dute eraginik handiena. Garraio publikoa sustatu eta indartu behar dela esan, eta hartu nahi diren neurriak zeharo kontrako bidetik doaz.

Egoera horri aurre egiteko, zenbait udalek urgentziatzko bilera eskatu diogu Aldundiari, eta, horrez gain, erabakia alegatuko dugu. Aldi berean, Usurbilgo Udalak herritarren eskura jarriko du alegazio pertsonalak egiteko aukera. Horretarako, urriaren 9a bitartean udaletxeko erregistroan (eta webgunean) eskura izango dira alegazio-orriak, hala nahi duenak bertan sinatu eta sarrera emateko.

Adeitasunez.

